

Baserriaz eta nekazaritzaz ariko dira Aranzadiren Arkeologia Jardunaldietan



Urdazubiko Alkerdi II kobazuloan aurkitutako bisontea.

Ostegunean eta ostiralean Donostiako San Telmon eskainiko diren hitzaldietan Donejakue Bideaz eta Urdazubin aurkitutako labarmargoez ariko dira, gaztelaniaz

Miércoles, 21 febrero 2018, 09:57

Arkeologiaren ikuspegitik ere azter daitezke baserria eta nekazaritza. UPV/EHUko irakasle eta Aranzadiko kide den Josu Narbarte horretaz ariko da asteazken honetan, otsailak 21, 19:00etan, Donostiako San Telmo museoan egingo den Aranzadiren XVI. Arkeologia Jardunaldien bigarren saioan.

Narbartek proposatu zuen "euskal baserria landa-paisaiaren testuinguru zabalagoan txertatzea, epe luzean gure lurraldeak ezagutu duen bilakaeraren ikuspegi bat bilatzeko". Hain zuzen ere, euskal baserria "historia edo arkeologia ikuspegi batetik landu denean ere" alderdi jakin batzuen inguruan "egituratu izan da ikerketa: funtzio aniztasuna, dispersioa, autarkia, iraunkortasuna..." Posible da, ordea, ikuspegi zabalagotik heltzea Euskal Herrian horrenbesteko garrantzia duen baserriari, eta horri buruz mintzatuko da Josu Narbarte Aranzadi Zientzia Elkarteak Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala eta San Telmo Museoaren babesarekin antolatzen dituen jardunaldietan.

Asteazken honetako saioa, bezperakoa bezala, **euskaraz** izango da. Izan ere, Aranzadiko Antxola Martínezen 'Erromatar ejerzitoa kanpainen Euskal Herrian' hitzaldiarekin abiatu ziren jardunaldiak astearte iluntzean. Garai batean ez bezala, gaur egun argi dago Erromatar Inperioak Euskal Herriko lurretara ere hedatu zuela bere boterea, eta azken urteotan aurrerapauso nabariak eman dira hura ezagutzeko bidean, nahiz eta erromanizazioaren hastapenak Euskal Herrian oraindik ez diren behar bezala ezagutzen.

Azkeneko bi saioak, ostegunean eta ostiralean, **gaztelaniaz** izango dira. Ostegunean, otsailaren 22an, 'Los muertos nos hablan: dieta, movilidad geográfica y sociedad en el Camino de Santiago medieval' hitzaldia eskainiko du Patxi Pérez Ramallo UPV-EHUko irakasleak, eta ostiralean, otsailaren 23an, 'Arte rupestre y nuevos descubrimientos en las cuevas de Urdazubi' gaia izango dute hizpide Arantxa Aranburu, UPV/EHU -

Aranzadi, Eneko Iriarte eta Diego Garate Aranzadiko kideek. Izan ere, Zelaieta-Ikaburuako sistema karstikoan egindako indusketek Nafarroako labar-pintura zaharrenak, paleolitikoak, aurkitzea ahalbidetu dute.